



Hasiera gazi-goza.- Saskibaloiko errendimendu ligako lehenengo jardunaldia jokatu zuten kadete mailako neskek kiroldegian larunbatean. Ordiziaren aurkako partida borrokatu behar izan zuen herriko taldeak eta gogotik saiatu arren, garaipena ezin izan zen etxean geratu. 29-36ko markagailuarekin bukatu zen partida. Errendimenduko junior neskek berriz, Orion izan zuten hitzordua eta hauek bai garaipena erdietsi zuten 22-37ko emaitzarekin. Bestalde, 3. probintzialeko senior mutilek ere partida izan zuten asteburuan. Atzo etxean jokatu zuten lagunartekoa Luberriren aurka. Etxekoak erraz gailendu ziren 95-53koarekin bukatuz. Hasiera gazi-goza beraz etxeko saskibalo taldeentzat, bi garaipen eta porrot batekin. Hala ere, lehenengo jardunaldia besterik ez da izan eta entrenatzaileak baikor agertzen dira denboraldi berriari dagokionean.

3 GIZARTEA

Aldundiak ez du Atsobakarreko egoitza hartu

Aldundiak Atsobakar erresidentzia bere gain hartuko ez duela jakitera eman du. Aldundiak hitzartutako 5 erresidentzietatik 4 bereganatuko ditu eta Atsobakar kanpoan geratu da. Aldundiak eskumen aldaketa egiteko datarik ere ez duela eman adierazi die udal ordezkari.

4 INGURUMENA

Bizikletaren festa Mugikortasun astean

Ostirala bizikletaren eguna izan zen herrian. Mugikortasun Astearen baitan, joko ezberdinak burutzeko aukera izan zen baita bizikleten bigarren eskuko azoka ere. Gaur ikastaro bat antolatu da eta biharkoan, herriko Manttangorri autobus zerbitzua doan izango da.

5 PAILAZOAK

Jalgune eta Albaolari buruzko emanaldi berezia

Jalgune elkarteari buruzko eta 'Zuhaitzetan itsasora goaz' erreportajeak ikusiko dira ostiralean Manuel Lekuonan. 'Txo, Mik Mak Txikia' DVDaren argitalpenagatik, antolatu dira proiektzioak eta mahai-ingurua. Honetan Jon Maia ariko da Albaolaz. Saioa 19:00etan hasiko da.



2. betaurrekoak
DOAN

erreflexuen aurkako
GRADUATUTAKO
zure mó-ak erosita

77€

www.multiopticasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

2015eko bildumak
marka guztietan

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

ELKARBIZITZA

Auzoa eta lana elkarbizitzarako

Iraganeko balioetan fokoa jartzea defendatu zuen Enrique Ayerberik Ganbo Iturrin

“Euskal seneko balioak elkarbizitzaren alde” titulupean hitzaldia izan zen larunbatean Ganbo Iturri elkartearen egoitzan. Enrique Ayerberi Etor-Ostoa editorialeko zuzendaria eta ‘Euskaldunak’ bildumaren editoreak, eskaini zuen eta Joxean Rekondo arduratu zen hau gidatzeaz.

Ganbo Iturriko egoitzan elkartu ziren larunbatean hainbat herritar Enrique Ayerberiren hitzaldia entzuteko.

Honakoa elkarbizitzaren inguruan elkarrekin egiten ari den lanaren baitan kokatu zen. Uzailean egin zen lehenengo hitzaldia. Honetan Andreas Schäfer eta Alex Carrascosak Gernika Gogoan, Bake museoak eta Bakeola elkarteek Bizkaian martxan duten MemoriaLab proiektua azaldu zieten elkarrekin bildu ziren herritarrei.

Larunbatekoan berriz, auzolana izan zen ardatz.

Joxean Rekondok azaldu moduan, “kontserbatu ditugun hizkuntza lanabesak, ezagutza tradizionalak eta bizirik dirauten herri-ohiturak humanizazio-potentziala baduela esan ohi dute jakitun askok. Orain elkarbizitza finkatzeko aukeraren aurrean

garela, galdera litzateke zertan lagun diezaguken oraindik bizirik den euskal sen horrek etorkizunean behar dugun auzogintza berria erakitzerakoan”.

Galdera horri erantzuna emateko Enrique Ayerberi gonbidatu zuten. Aipatu behar da, honek aurretik ere parte hartu izan duela herriko elkarteak antolatutako beste egitasmo batzuetan.

Iraganetik ikasi

Enrique Ayerberiren hitzetan, auzolanak bere baitan dituen balioek egun bizi dugun elkarbizitza arazoa konpontzeko baliagarriak dira.

“Indarkeria amaituta, oraindik banatuta dagoen gizarte batean bizi gara eta hau gainditzeko, elkarbizitzarako lanketa instituzioetatik baita herrigintzatik egin behar da”. Honen ustetan gizarteak momentu honetan eskatzen



Larunbateko saioa Ganbo Iturrin egoitzan egin zen.

du elkarbizitza arazoarentzat irtenbide bat.

Egun instituzioek egiten ari diren lanketaz gain, bere ustetan iraganera jotzea beharrezkoa da.

Historian zehar euskal jendarteak gatazka larri asko gainditu eta konpondu ditu. Horregatik uste du erantzuna herriaren memorian

dagoela, hizkuntzan, ohitura eta usadioetan.

Auzo eta lan

Ayerberik auzolana azpimarratzen du gure gizartearen oinarri eta abiapuntu. “Auzoa eta lana dira abiapuntutzat hartu behar diren baloreak”

“Egun badago gure gizartearen gai honekiko sentsibili-

zazioa eta dagoen elkarlanerako jarrerak gure usadioek markatutako auzolan horretatik datoz”. Hala nola, burujabetasuna, laguntza eskaintza... Hauek dira abiapuntua elkarbizitzaren lanketarako. Horretako herrigintzan eragin behar dela uste du Ganbo Iturrin ‘Elkarbizi’ egitasmoa bezalakoekin.

Euskara sustatzeko laguntzak

Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuak euskarazko komunikazioa hobetzeko laguntzak jarri ditu aurrean ere elkarrekin eta merkatarien eskura.

Fatxadako errotulua, beselako errotulazioa, irudi korporatiboa, web orria, programa informatiboak eta kanpo erabilerarako dokumentazioa euskaratu nahi duten elkarrekin edo merkatariek aukera dute eta %50ko diru laguntzak eskuratu ahal dituzte. Esate baterako, web orrialdea euskaratu nahiez gero,

450 euroko laguntza jaso dezakete.

Laguntza hauetaz gain, testu zuzenketa, itzulpenak edo euskarazko kartelak ere eskuragarri dituzte Euskara Zerbitzuan.


Euskara ikasi

Bestalde, haien euskara maila hobetu edo euskara ikasi nahi duten herritarrek ere Euskara Zerbitzuan Ondo ibili programa dute. Honen bitartez, %85a arteko dirulaguntza eskuratu dezakete.

Lasarte-Oriako euskalgietako talde arruntetan, udako ikastaroetan, autoikasuntza ikastaroan edo barne-tegi batean parte hartu duten ikasleei zuzendutako laguntza da.

Interesatuak honako baldintza hauek bete behar dituzte: Lasarte-Oria erroldatua egon, 16 urte beteak izatea eta gutxienez %85eko asistentzia gaintzea.

Eskaera dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu



Dokumentazioa, programa informatiboak edo kartelak euskaratzeko laguntzak daude.

behar dute interesatuak. Honi buruzko argibiderik jaso nahiez gero, jarri harremanetan Euskara Zerbitzuekin,

943 37 61 84 telefonora deituz edo m.gorostiza@lasarte-oria.org helbide elektronikoaren bitartez.

Diruz laguntzen duten erakundeak**Babeslea**

LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea**Argitaratzailea:**

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri**Erredakzioa:**

Maidor Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez.
txintxarri@txintxarri.info
publizitatea@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidor Seguro, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

ATSOBAKAR ERRESIDENTZIA

Aldundiak ez du eskumena onartuko

Alkateak Atsobakar erresidentzia lehenbailehen bere gain hartzeko eskatu dio Aldundiari

Ostegunean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakunde Publikoen Zuzendari Nagusia, Elena Basagoiti izan zen Atsobakar egoitzan. Bertan Jesus Zaballos alkatearekin bildu zen Atsobakar erresidentziaren egoerari buruz hitz egiteko. Herriko zahar egoitza Udalaren eskumen izaten jarraituko du. Lasarte-Oriako Udala eta Foru Aldundiaren arteko liskarra 2001 urtean hasi zen.

TXINTXARRI

Jesus Zaballos alkatea, Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzueta zinegotzia, Gizarte Zerbitzueta zuzendaria eta erresidentziako zuzendariarekin batera, Elena Basagoiti Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakunde Publikoen zuzendariarekin bildu zen ostegunean, Atsobakar erresidentzian bertan. Honen helburua Foru Aldundiak Udalarekin hitzartutako eskumen aldaketa egitea eskatzea zen.

Komunikabideei Udalak helerazitako prentsa oharren arabera, "herriko ordezkarien harridurarako" Aldundiak Atsobakar erresidentzia bere gain hartuko ez duela jakitera

eman zion alkateari. Aldundiak hitzartutako 5 erresidentzietatik 4 bereganatuko ditu eta beraz, Atsobakar kanpoan geratzen da.

Honetaz gain, Aldundiak eskumen aldaketa egiteko datarik ere ez duela eman adierazten da oharrean.

Onartezina

Lasarte-Oriako alkateak Aldundiaren planteamendua onartezina dela salatu eta Atsobakar erresidentziaren bereganatzea lehenbailehen egiteko eskatu zion Gizarte Zerbitzueta zuzendariari.

Izan ere, horrela eginez gero, egoitza Foru Aldundiak ekainerako egin nahi duen lehiaketa orokorrean sartuko bailitzateke.



Atsobakar zahar egoitza Lasarte-Oriako Udalaren esku geratuko da oraingoz.

Eskaerak eta arazoak

Honetaz gain, alkateak eguneko zentroan libre dauden 21 plaza eta egoitzako beste 15 betetzeko eskaera egin zion Aldundiari. Udalaren ustez, herrian dagoen itxaron zerrenda luzea da eta Aldundiak ez du irtenbiderik ematen.

Era berean, Udalak erresidentzian bizi den ziurgabetasun egoera eta honek dakartzan arazoak azaldu ziz-

kioten Aldundiko arduradunari. "Egun langileek ez dute lan hitzarmenik eta sukaldaritza langile eta besteen arteko soldata-diferentzia oso handia da", adierazi du Udalak.

Konponbidea laster

Jesus Zaballos alkateak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzuna azkarra izatea eta hitzartutako konpromisoak betetzea espero du.

Izan ere, "Foru Aldundi eta Lasarte-Oriako Udalaren arteko liskarra hau 2001 urtean hasi baitzen eta geroztik Udalak 10 milioi euro galdu baitu honetan".

Konponbiderik egon ezean, Jesus Zaballos alkateak epaitegietara joko dutela jakitera eman zion Elena Basagoiti Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakunde Publikoen zuzendariari.

Gaztelekua gazteen eskura

Ikasturtearekin batera, Gaztelekua ere martxan jarri da. Herriko gazteei zuzendutako hainbat zerbitzu aurkitu daitezke bertan. Gainera, entsaiatzeko, bilerak egin edo tailerrak antolatze guneak behar dituzten gazteek atek irekiak dituzte.

Lasarte-Oriako Udalak ikasturtean zehar Gaztelekuko instalakuntzak musika talde, elkarte edo banakakoen erabilerarako irekiko ditu 10:00etatik 24:00etara.

Honela, musika talde edo bakarlariak Gaztelekuan dauden entsegu lokalak erabili ahalgo dituzte.

Elkarte edo bakarkako herritarrek ere bilera gela, dantza areto, erabilera anitzeko aretoa edo tailerretarako aretoak eskatu ahalgo dituzte.

Eskaerak

Lokal edo entsegu geletako erabilera egin ahal izateko, Gaztelekuan eskura dagoen orri bat bete behar dute interesatuek.

Eskaera egiterakoan Lasarte-Oriako 30 urtetik beherako



Gaztelekuko zerbitzuak gazteen esku daude beste ikasturte batez.

gazteek lehenbailehen izango dute.

Orria irailaren 25a baino lehen aurkeztu behar da Gaztelekuan bertan.

Beste zerbitzuak

Honetaz gain, gazteentzako sexu aholkularitza zerbitzua ostegunero 18:00etatik 20:00etara egongo da irekia.

Herriko gazteek taldean edo bakarka gerturatu daitezke zerbitzu honetara eta sexuari buruz dituzten zalantza, arazo edo beldurrak bertan argitu ahal dituzte.

Era berean, asteartetik larunbatera 17:00etatik 20:00etara nerabeen zerbitzua martxan egongo da. Honetan tailerrak, mahai tenisa, futbolina edo bideojokoak izango dira gazteen eskura.

Bestalde, lanak egiteko gazteen txokoa eta gazte informazioa bulegoa ere aurkituko dituzte Gaztelekuan.

Azken honetan, besteak beste, beka, lehiaketa, gazteei zuzendutako txartel berezi edo auzolandegiei buruzko informazioa eskuratu dezaketen herriko gazteek.

KUKUKA

Izena emateko azken egunak

Kukuka antzerki eta dantza eskolan parte hartu nahi duten herritarrek izena emateko azken egunak dituzte hauek.

Adinaren arabera eskaintza aurkeztu du eskolak aurten ere, HH5etik aurrera euskal dantza, LH4tik aurrera euskal dantza-sorkuntza, DBH1etik aurrera dantza garaikidea edo antzerkia LH1etik aurrera.

Izena emateko edo informazioa eskuratzeko 655 847 345 telefonora deitu edo kukukaeskola@hotmail.com helbidera mezu bat bidali behar da. Azken eguna irailaren 24a, osteguna da.

ATERPEA

Stock azoka larunbatean

Aterpea Merkatarik elkarrekin aurten ere Stock azoka antolatuko du, irailaren 26an, larunbatean.

Aurten elkarteko hamar denda Josema sarraila-denda, Urruzola mertzeria, Santana informatika, Alda osagarriak, Alba moda, Akene zapata-denda, Aritza mertzeria, Iturbe zapata-denda, Urruzola mertzeria eta Abreu bazarra izango dira parte-hartzaileak. Denda bakoitzak bere lokalean karpa bereizgarri bat edukiko du. Honen helburua nagusia, merkataritza sustatzea da.

Aterpea Merkatarik elkarrekin eta Lasarte-Oriako Udalak herritarrek gonbidatzen dituzte honetan parte hartzera.

EUSKARA

Muntteri-AEKn matrikula garaia

Muntteri-AEK euskaltegiak euskalduntzeko maila guztietako ikastaroak edo hizkuntza eskakizunak eta HABEren azterketak prestatzeko saioak eskaintzen ditu.


Ikastaroren batean izena eman nahi dutenek euskaltegira joan daitezke 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara edo 943 372 863 telefonora deitu. Izena emateko azken eguna irailaren 30a da.



Ibilbidea egin zuten herriko kaleetan barrena gaztetxoek.



Txikiagoek txango motzagoa egin zuten baina ederki pasa zuten begiralea jarraituz.



Bigarren eskuko bizikleta zein osagaiak izan ziren eskuragarri.

Bizikletaren festa Okendo plazan

Mugikortasunaren Astean, ikastaroa eta Manttangorriren zerbitzua doan izango dira

Bi gurpileko ibilgailu motorrik gabekoen bilgune bihurtu zen ostiralean Okendo plaza. Bizikletaren festa da Mugikortasun Astearen egitarauko ekitaldi garrantzitsuenetako bat, eta hainbat herritar hurbildu ziren arratsaldean zehar antolatzaileek prestatutako ekintzetan parte hartzera edo bigarren eskuko azokan bizikletak begiratu eta prezio merkeetan erostera.

bizikleta eraman zituzten saldu edo trukatzeko, eta aukera baliatuz batek baino gehiagok gustoko bizikleta hartu eta probatzen aritu zen, erosi ala ez erabaki aurretik.

Ikastaroa gaur

Aste honetan ere antolatu dira ekintza batzuk Mugikortasun Astearen barruan.

Gaur arratsaldean ikastaro teoriko-praktiko bat egingo da, 18:30etatik 20:00etara. Oraindik badaude plaza libreak; interesa dutenek 943 67 02 49 telefonora hots egin beharko dute erreserba egiteko, mugatuak baitira toki horiek.

Azkenik, bihar, egun osoz 'Muittu Manttangorri' herriko autobus zerbitzua doakoa izango da erabiltzaileentzat. Udalak honen erabilera sustatu nahi du horrela.

TXINTXARRI

Bizikletek hartu zuten Okendo plaza ostiral arratsaldean. Mugikortasun Astearen baitan 'Bizikleta festa' delakoaz eta bigarren eskuko bizikleten azokaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek.

Gaztetxoek bizikletak trastero eta garajeetatik atera eta herrian zehar bi ibilbide egiteko aukera izan zuten, Ttakun Kultur Elkar-terko begiraleen laguntzaz.

Ibilbide motza aukeratu zutenak 16:30ean atera dira

Okendotik bertatik, eta 17:00etan ibilbide luzea burutzeraz animatu zirenak. Horrez gain, bizikleta eta abilezia uztartzen dituzten jokoez gozatu zuten haurrek, arratsalde osoan zehar: bizikleta gainean ibili bitartean makiltxo batekin oihaltzati bat hartzea, uztai bat kono batean sartzea, balantzin batetik pasatzea edota baloi bati ostikoa eman eta ate barruan sartzea.

Bien bitartean, herritar ugari hurbildu zen bigarren eskuko azokara.

Herritarrek hainbat



Joko ezberdinetan aritzeko aukera izan zen bizikleta gainean.



Taldeko jolasak ere egin ziren txikien gozamenerako.



Trebezia eta ekilibrioa bizikleta gainean frogatzeko aukera izan zuten.

Pailazoen ekitaldi berezia

Jalgune elkarteari buruzko eta 'Zuhaitzetan itsasora goaz' erreportajeak ostiralean

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Euskal Herrian zehar ibili dira 'Txo, Mik Mak Txikia' ikuskizunarekin. Antzerki edo aretoetan ikusi ahal izan ez dutenek, orain DVDa dute eskuragarri. Honen harira, herriko pailazo bihurriek ekintza berezi bat antolatu dute ostiralean, 19:00etatik aurrera, Manuel Lekuona kultur etxean.

Joxe Mari Agirretxe 'Porrotx' eta Mertxe Rodriguez 'Marimotots' Jalgune elkarteko lagunekin bildu ziren ostegunean ekimen berezi bat aurkezteko. 'Txo, Mik Mak Txikia' ikuskizunaren DVDaren argitalpena dela eta, erreportaje proiektio eta mahai-ingurua egingo da Manuel Lekuonan.

DVDan Gorriti eskultorea, Albaola proiektua, itsasoaren osasunari buruzko 'Zuhaitzetan itsasora goaz' edo Lasarte-Oriako Jalgune elkarteari buruzko erreportajeak daude besteak beste, eta azken bi hauek hurrengo ostiralean, irailaren 25ean Manuel Lekuonan proiektatuko direla eman zuten jakitera agerraldian.

Joxe Mari Agirretxek azaldukoaren arabera, "bi erreportaje hauek eskainiko dira festa baten barruan. Bertan, Jon Maia bertsolaria eta Albaolako kidea izango da lehen erreportajeari buruz hitz egiteko eta Jalguneko lagunak ere izango dira."

Agirretxeren aburuz, "Jalgune proiektua, azken urte eta hamarkadan gertatutako gauzarik garrantzitsuenetakoa da. Herriari indarra eta harrotasuna ematen diote eta guztia balioetan oinarritua, laguntasuna, alaitasuna... eta hau jendeak ezagutzea nahi dugu."

Izan ere, Porrotxen hitzetan, "Jalgunerean erreportajea egiten oso ondo pasa genuen. Emozionatu eta irri asko egin



Joxe Mari Agirretxe 'Porrotx' eta Mertxe Rodriguez 'Marimotots' Jalgune elkarteko gazte eta begiraleekin egin zuten aurkezpena.

genuen. Hori islatzen da eta uste dugu jendeari bihotza handituko zaiola ikustean."

Iñaki, Javi, Marga eta Josu Jalgune elkarteko gazteek, pailazoiei eskerrak eman zizkieten haiengan pentsatzeagatik. Erreportajearen parte hartzea asko gustatu zitzaiera eta oso ondo pasa zutela ere jakitera eman zuten.

Honetaz gain, emanaldi berezi honetan antzerkia eta

dantza egingo dutela aurreratu zuten.

Hausnarketa

Proiektzioen ostean, 20:00etan, mahai-inguruan hausnarketa egiteko hitzordua izango da.

"Patata eta azeituna batzuen inguruan solasaldia izango da. Euskal Herrian eta Lasarte-Orian ereindako bi proiektu edo amets egia nola

bilakatu diren aztertuko da," azaldu zuen Agirretxek.

Sarrerak

Pirritx, Porrotx eta Marimotsek eta Jalgune elkarteko lagunak herritarrak gonbidatzen dituzte ekintza berezi honetan parte hartzea eta DVDko erreportajeak ikusteko sarrerak beharko direla jakitera eman zuten, "sarrerak egunean bertan jarriko dira eskuragarri."

ERAIKIN BERRIA SALMENTAN, SOILIK

2 ETA 3 LOGELATAKO 14 ETXEZITZA. SANTA BARBARA ALDEA BISTA EZIN HOBEAK. ZONA BERDEAZ INGURATUTA.

189.000€

+ BEZ-TIK AURRERA

DONOSTITIK SEI MINUTUTAN!

residencial
zabaleta (berri)
bizigunea

INFORMAZIOA



943 368 942
zabaletaberri.com



%80A SALDUTA 1GO FASEAN

Eraiki aurreko merkaturatze sustapena. Informazio hau alda daiteke arrazoiz tekniko edo komertzialengatik. Interesdunen eskura dago gure bulegoetan iragarki honetan ez dagoen gainerako informazio guztia, 515/89 Errege Dekretuak, apirilaren 21ekoak, eskatzen duena.

Kutxabankek finantzatuta



Agenda

Larunbata, herriko dendetan, egun osoa



Stock Azoka Aterpeko dendetan

Aterpea elkarteko dendek stock azoka egingo dute egun osoan zehar. Eskaintzez gain, hainbat ekintza antolatu dituzte herriko merkataritza aktibatzeke helburuarekin. Beste edizioetan ez bezala, denda bakoitzak eskaintzak aterako ditu kalera eta ez dira gunek bakar batean denak elkartuko.

Ostirala 20:00etan

Gala Lirikoa izango da. Ainhoa Garmendia, Haizea Muñoz, Mary Downing eta Igor Peral sopranoak izango dira kantuan, Iosu Yeregui eta Mikel Zabala baxua. Sarrera 15 euro.



Zinea

BASTERO

Larunbata 19:30 eta 22:00

'Irrational man' Woody Allen zuzendariaren azken filma ikusteko aukera izango da. Sarrera 5 euro.

Larunbata 17:00etan

'Atrapa la bandera 3D' haurrentzako filma ikusi ahal izango da. Sarrera 5,50 euro.

Igandea 19:30ean

'Irrational man' Woody Allen zuzendariaren azken filma ikusteko aukera izango da. Sarrera 5 euro.

Igandea 17:00etan

'Atrapa la bandera' haurrentzako filma ikusi ahal izango da. Sarrera 5,00 euro.



Lasarte-Oria

Erakusketa

MERCERO ARETOA

Irailaren 24tik 26ra

Gureak erakundearen 40. urteurrena dela eta, 'Etorri eta bizi esperientzien lantegia. Jokoen bidez desgaitasuna ulertzen' erakusketa izango da ikusgai. Sarrera doan.


Bertsolaritza

MANUEL LEKUONA

Igandea, 17:30ean

Gipuzkoako bertsolari txapelketako saioa. Final zortzirenetako sei saioetako bat izango da herrian jokatu dena. Honetan arituko dira, Maider

Arregi, Mikel Artola, Aitor Irastorza, Xabier Sukia, Beñat Lizaso eta Gorka Azkarate bertsolariak. Aurkele lanak egingo ditu Inaxio Usarralde. Sarreraren prezioari dagokionez, Bertsozale elkarteko bazkideentzat 6 eurokoa izango da, gazteentzat 4 euro eta gainerakoentzat 9 euro.



Usurbil Musika

MIKEL LABOA PLAZA

Larunbata 22:30ean

'Xiberoots' musika-taldearen emanaldia. Sei gaztek osatutako taldea da, Euskal kantuen maitaleak, eta reggae zaleak. Kantu zahar eta berriak Zuberoatik Jamaikara. Doan. Jexux Artze Kultur Elkartea, Kantu Taldea eta #Kilometroak15-ek antolatuta.

Andoain Musika

BASTERO

Herritarren txokoa

Biyak Bat elkarteko abesbatza zuzendari bila

Biyak Bat erretiratuen elkarteko abesbatzak zuzendaria behar du. Elkarteko kideek azaldu digutenez, urtariletik aurrera hasiko litzateke lanean zuzendari berria. Interesa duten pertsonak elkartearekin harremanetan jarri behar dira 943 36 39 64 zenbakian, biyakbat@gmail.com helbide elektronikoan edo egoitzara hurbilduz, Kale Nagusia 40 baxua, astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era.

Intza K.Eren mus txapelketa

Intza K.E-ren 42. mus txapelketan izena emateko aukera dago zabalik. Honakoa irailaren 25ean itxi egingo da. Irailaren 28an hasiko da txapelketa eta izena ematearekin batera, 30 euro ordainduko ditu bikote bakoitzak eta horrela finalaren eguneko afaria ordainduko da. Baldintza bezala, bikote bakoitzean

Intzako bazkide batek egon beharko du.

Hemeroteka

Duela 1180 ale

1997an mugikorrek gurean laster zabalduko ote ziren galdetzen zuen erreportaje batean TXINTXARRIK. Hiri handietan oso zabaldua omen zeuden ordurako aparailu hauek eta gurean hasiak ziren ikusten.

"Snobismoa mugikorraren prezioa jaistean eta zenbaitetan oparitzean hasi zen. Hasiera batean, mugikorrak 550 edo 600 mila pezeta balio zuten eta garai haietan lanerako beharrezkoa zutenek erosten zuten bakarrik: enpresariak, taxistak, garraiolariak etab. Aldaketa duela bi urte gertatu da" esaten zuen Alfredo Basurko telekomunikazioetan lan egiten zuten herritarrak.

1995.urtean telefonia digitala eta Airtel azaltzean telefonia masifikatzen "bi horiek merkatura sartzen direnean bi operadoreen arteko lehia hasi zen eta horrek eragin zuzena izan zuen prezioetan. Asko merketu egin ziren, telefono mugikorrak oparitzen ere hasi ziren eta jende askok eskuratu zituen".



Zuen oharrak jarri, kekek adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Solaskiden izena emateko aukera dago

Urriaren 30a izango da azken eguna

Euskara ikasi, praktikatu eta hobetu nahi dutenek, edo hauei laguntzeko mintzalagun izan nahi duten euskaldun zaharrek atek zabalik dituzte Solaskide programan. Ttakun kultur elkarteak kudeatzen duen egitasmoa mar-txan da eta dagoeneko izena eman daiteke honetan. Aurki hasiko dute mintzalagunek ikasturtea eta euskalte-gietan ere hitzaldiak eskainiko dira honen inguruak azal-duz.

Ttakun Kultur elkarteak, Udalaren eta herriko euskaltegien laguntzarekin eramaten du aurrera Solaskide egitasmoa. Euskaraz hitz egitea da helburua eta horretarako euskaldun zaharrak euskaldun berriekin elkartzen dira asteroko hitzorduak sustatuz.

Herrian 100 bat partaide ditu egitasmoak eta talde ezberdinetan daude banatuta.

Hauek denetarikokin egiten dituzte, kafe bat hartu, paseo bat eman, kirola egin... eurek erabakitzen dute zein maiztasun eta zein ekintza egin elkarrekin. Betiere euskaraz mintzatuz.

Ekintza desberdinak

Asteroko hitzorduak gain, solaskideek ekimen bereziak ere dituzte urtean zehar, afariak, ikastaroak, etab. Ttakunetik zein solaskideen talde eragiletik sustatutakoak. Hauekin bilatu nahi da euskaldun berriak ahalik eta inguru desberdinetan euska-

raz hitz egiteko aukera izatea. Jendearekin harremanak euskaraz eraikitzea duen garrantzia kontutan hartzen da hauek antolatzeke garaian.

Solaskide izateko

Sustatzaileek Solaskide izateko hainbat irizpide finkatu dituzte. Horrela izanda, euskaltegietan 4. eta 5. mailetan hau da, euskaraz harreman-tzeko gai direnek edo maila altuagoa duten ikasleek parte hartu dezakete ekimen honetan.

Baina euskaraz hitz egin eta euskaltegietan ez dagoen jendea ere ongi-etorria da. Izan ere, bada jendea bere euskara maila hobetzeko beharra duena eta aukerarik ez duena inguruan euskaldunik ez daukalako adibidez.

Honetaz gain, urteroko deia egiten zaie euskaldun zaharrei. Euskaldun berriei bideak zabaltzeko prest dauden bidelagunak behar dira.

Ikasketa prozesuari dago-

kionez, jende euskalduna ezagutzeko aukeraz gain, azpimarratzekoa da horrelako saioetan entzumenak duen garrantzia ere. Haurtzaroan bezala, entzunez asko ikasten dela diote programaren bultzatzaileek: "Hizkuntza baten ahoskera eta jarria entzunez eskuratzen da".

Izena ematea

Egitasmoaren inguruko azalpenak edo informazio gehiago eskuratzeko, solaskide programako koordinatzailearekin harremanetan jar daitezke hurbilduz, solaskide@ttakun.com helbidean edo 943 371 448 zenbakira deituz. www.mintzalaguna.eus helbidean ere aurki daitezke Euskal Herrian zabaltzen den egitasmoaren inguruko zehaztasunak.

Koordinatzaileak, pertsona bakoitzaren beharrak aztertu eta bakoitzarentzat aukerarik onena bilatuko du. Azken finean, euskara ikaste-prozesua ez da erraza izaten askorentzat. Bidea egiteko laguntza eskaintzen du solaskidek.

Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago eta horrela izango da urriaren 30a bitartean. Hortik aurrera, ikasturtean jende gehiago onartu ahal izango da beti ere talde nahikoak badaude.



Topaguneak gidatzen duen kanpainaren irudia.

Xabier Andonegi apaizari agur beroa

Xabier Andonegi apaizak atzo gidatu zuen azkeneko meza nagusia San Pedro elizan. Herrian 17 urte egin ostean, horietatik zortzi San Pedro elizako parroko bezala, Donostiako San Bizente elizara doa. Atzokoa meza berezia izan zen Andonegientzat.

Mezan azaldu bezala, apaiz faltak bultzatuta, Donostiara mugitu dute eta aurrerantzean bere lekua hartuko dute Juan Luis Muruak eta Usurbilgo apaiza den Ibon Alberdik. Bien artean dauden parrokiak kudeatuko dituztelarik.

Andonegik esker oneko hitzak izan zituen Lasarte-Oriarentzat.

Bereziki eskerrak eman zizkien igandero mezara joaten diren herritarrei, haiek gabe bere lanak zentzurik ez zuelako izango. Horretaz gain, herrian maitatua sentitu

dela esan zuen. Andonegi Brigitarren komentura iritsi zen duela 17 urte. Bere lehenengo parrokoa Eibarren izan zuela kontatu zuen atzo eta han sei hilabete soilik egin ostean, Seminarioko zuzendaritza hartu zuen. Garai hartan iritsi zen hain zuzen gurera. Don Ramon ordezkatzeko ardura eman zioten.

Omenaldia

Mezan alkatea eta hainbat zinegotzi egon ziren apaiza agurtzeko. Bosteko koruak girotu zuen ofizioa eta hauek lagunduz izan ziren Su Berri akordeoi orkestrako zenbait kide.

Horretaz gain, ezustean, agurra ere eskaini zioten apaizari hiru dantzarik.

Meza bukatzean, bazkaria egin zuten apaizarekin herrian egindako ibilbideari amaiera emateko.



San Pedro elizako Xabier Andonegi parrokoari omenaldi beroa egin zioten herritarrek atzoko meza nagusian.